



HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2025EKO MARTXOAREN 3KO EBAZPENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MAISU-MAISTREN KIDEGOKO LANGILE FUNTZIONARIOEN ESTATU MAILAKO 2024/2025EKO LEKUALDATZE-LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPOAN UTZITAKO PARTE-HARTZAILEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ETA MEREZIMENDUEN BAREMOAN LORTUTAKO PUNTUAZIOA ARGITARA EMATEN DITUENA

Hezkuntza sailburuaren 2024ko urriaren 25eko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2024ko azaroaren 4a), Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko urtarrilaren 29ko ebazpenaren bidez eman ziren onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrenda, eta merezimenduen baremoan lortutako puntuazioak argitara.

Aipatutako 2024ko urriaren 25eko agindua, hogeita bostgarren oinarrian xedatutakoaren arabera, behin-behineko zerrenden kontrako erreklamazioak berrikusi dira eta, behar zirenak aintzat hartu ondoren, aldaketak egin dira. Halaber, barematzean atzemandako beste akats batzuk ere zuzendu dira. Akats horien ondorioz, parte-hartzaile batzuek puntuazio handiagoa edo txikiagoa izan dute baremoaren zenbait ataletan.

Horiek horrela, behar ziren aldaketak egin ondoren eta Hezkuntza sailburuaren 2024ko urriaren 25eko aginduak hogeita bostgarren oinarrian xedatutakoaren arabera,

EBATZI DUT:

Lehena.- Argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioen arteko erkidego mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda, Hezkuntza sailburuaren 2024ko urriaren 25eko aginduak I. eranskinean ezarritako baremoaren arabera esleitutako puntuazioa adieraztearekin batera.

Bigarrena.- Argitara ematea aipatutako kidegoen arteko erkidego mailako lekualdatze-lehiaketatik at geratutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda, arrazoia adieraztearekin batera.

Hirugarrena.- Argitara ematea parte-hartzaileen behin betiko zerrenda, lanpostu berezien eskaerei baja eman zaiena lanpostua betetzeko eskatutako baldintzaren bat ez egiaztatzeagatik, lanpostu berezia eta egiaztatu gabeko baldintza adierazita.



Laugarrena.- Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, era telematikoki hurrengo interneteko helbidean : <https://hezigunea.euskadi.eus/es> / Eremu pertsonala / Izapideak langileen sailarekin / Lekualdatze Lehiaketa / Behin betiko zerrendaren aurkako gora jotzeko errekurtoa.

**UNAI NIETO MARIJUAN
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteizen, 2025eko martxoaren 4a